

# Ikur bakoitzaren eginbearra

Alango baten, goizez, JAUNGOIKOA bere 12 sorkarien aurrean agertu zan eta bakoitzarengan giza-bizitzaren azia erein eban. Banaka, ume bakoitzak aurrerantza urratsa emon eban DOAIA ta jagokon sendia eskuratzeko.



## ARITOAGA, zatoz ona...!



Zuri lenengo azia damotzut landatuteko aukereagaz batera. Azi bakoitza landatuaz millaka sortuko jatzuz. Es dozu astirik eukiko azten ikusteko landare danak, barriak sortuko debezelako landatuteko gero eta geiago. Zu izango zara gizaki-buruaren alorrean lenengoz sartuko zarana nire Ideia eroanaz. Baña eztagokizu elikatu edo zaindutea ezta eztabaidatzea be Ideia au. Zure bizitza ekinean datza eta ekintza bakarra damotzudana gizaki guztiak sortzeaz jabetu daitezela da. Lan onengaitik Begirune Pertsolanaren onura eskuratzen dautzut.

Eta ARITOAGA, ixillean, bere lekura itzuli zan. Ezaugarri garrantzitsuena: Bakoitzasuna, Ekitea.

Zelangotasuna: Adorea, Zintzotasuna.

Akatsa: Bultzazale ta Egizale geiegia.

## ZEZENAGA, zatoz ona...!



Zuri, ZEZENAGA, aziak izatedun biurtzeko eskubidea damotzut. Zer esan andiko lan ori, egonarrria eskatuten dautzu asitako guztia amaitu bear dozulako, aziak aizez sakabanatu ez daitezen.

Ez dozu aldatu bear biderdian ideia, ezta iñoren mendean ibilli eskatuten dautzudana bete al izateko. Orretarako Indarraren Doaia damotzut. Jakituriaz jokatu.

ZEZENAGA bere lekura itzuli zan.

Ezaugarri garrantzitsuena: Irmotasuna.

Zelangotasuna: Leialtasuna, Iraupena.

Akatsa: Itsukeria, Zinduzalekeria.

## BIZKI, zatoz ona...!



Zuri, BIZKI, erantzun bako ituanek damotzudaz, eroan dagizun danontzat gizakiak inguruen daksanen ulermena.

Zuk iñoz be ezta kizu gizakiak zer dala ta berba egiten daben edo entzuten eztaben, baña erantzunaren billa zabizela aurkituko dozu jakitun egingo zaitun nire Doaia.

Eta BIZKI bere lekura joan zan.

Ezaugarri garrantzitsuena: mugimendua.

Zelangotasuna: mellegotasuna, aldakortasun

Akatsa: jakinnai geiegizkoa, konpromiso eza.

## KARRAMARROAGA, zatoz ona...!



Zuri, Karamarroaga, gizakiari xamurtasuna erakusteko lana damotzut.

Nire asmoa eurengan barre ta malkoak sortuaztea da, ikusten eta sentitzen daben guztiak erabat zabaldu dagien euren barrua.

Orretarako FAMILIAREN DOAIA damotzut zure betekizuna ugaritu dadin.

Karamarroaga bere lekura itzuli zan.

Ezaugarri garrantzitsuena: Sentipena.

Zelangotasuna: Empatia, Sentiberatasuna.

Akatsa: Geldotasuna, Antziñazaletasuna, Zalan-tzakortasuna.

## LEOI, zatoz ona...!



Zuri, Leoi, nire izadia edertasun bete betean azaltzeko zeregiña damotzut.

Baña kontuz arrokeriagaz , gogoratuz Izadia eztala zurea nirea baño.

Aztutzen ba dozu ori gaitzetsiko zaitu gizadiak.

Gutziz alaia da zure lana;ondo egitea naiko. Orregaitik Izen Onaren Doaia damotzut.

Eta Leoi bere lekura itzuli zan.

Ezaugarri garrantzitsuena: Alaitasuna

Zelakotasuna: Duintasuna, Eskuzabaltasuna, Kanporakoitasuna,

Akatsa: Norkeria, Agintekeria, Itsukeria.

## LUPUIZAR, zatoz ona !



Zuri, Lupuizar, ekintza zaila emongo deutzut.

Gizakien gogoia ezagututeko trebetasuna eukiko dozu, baño ezingo dozu barbarik egin ikasten dozunari buruz.

Askotan ikusten dozunagaz minduko zara eta zure samiñaldian nire aurka zutituko zara, aitzuaz ez nazala Nik nire Idea nastuteak baño, nekatuazten zaituna. Gizakiaren aberekikoari buruz ainbeste ikusteak ta zure barneko indarrakaz ainbeste burrukatzeak , zure ibilbidean okertuaziko zaitue baño lengora itzultzean Amaieraren Doai bikaña lortuko dozu.

Eta Lupuizar bere lekura itzuli zan.

Ezaugarri garrantzitsuena: barnetasuna.

Zelangotasuna: Gizakiaren sena ezagutzea.

Akatsa: Geiegi sakontzea.

## NESKAGA, zatoz ona !



Zuri, Neskaga, eskatzen dautzut aztertu dagizula gizakian nire Izadiari buruz egindako gutzia.

Begiratu bearko dozuz zuertasunez ibillitako bideak, oartuaziz euren okerrak olan , zure bidez, nire izadia obeagotu dadin. Alan egin dagizun Garbitasun Doaia emoten dautzut.

Eta Neskaga bere lekura itzuli zan.

Bereizkuntza garrantzitsuena: Betei oberena egiteko gogoia.

Zelangotasuna: Guraritasuna, Apaltasuna, Obenegite etenbakoa.

Akatsa: Kritika geiegia.Obena egitearen zoramenena.

## AZTAGA, zatoz ona..!



Zuri, Aztaga, serbitzeko egin bearra damotzut gizakia alkarreganako zeregiñen jabe izan dadin, ikasi dagian alkarlana ta egindakoen beste aldea azaltzeko trebetasuna.

Bai eta liskarra dagoan artera eroatea. Zure alegiñez ordez Maitasunaren Doaia emongo deutzut.

Eta Aztaga bere lekura itzuli zan.

Bereizkuntza garrantzitsuena: Urkoaren billaketa, Alkarkoitasuna.

Zelangotasuna: Diplomazia, Sotiltasuna, Sena.

Akatsa:Erremiña, Atsegindu zalea, Eztabaidetarako zailtasuna.

## GEZIAGA, zatoz ona...!



Zuri, Geziaga, gizakiari barre egiñaztea eskatuten dautzut, nire Idearen nastualdietan mingostuko diralako.

Barrekaldiaren bidez itxaropena sortuko dautzazu gizakiari et olan euren geziek niganatuaziko dozuz.

Bizitza ugari eukiko dozuz, igeskorak noski, eta bizitza bakoitzean urduritsu arkituko zara.

Zuri, Geziaga, eten bako ugaritasun Doaia emongo dautzut, edatu al dagizun illuntasuna dagoken oku-luetaraño, argitasunez blaituz.

Eta Geziaga bere lekura itzuli zan.

Bereizkuntzarik garrantzitsuena: Edagintza.

Zelangotasuna: Baikortasuna.

Akatsa: Arrotasuna.

**AKERRAGA,  
zatoz ona...!**



Zugandik, Akerraga, gure dot zure alegiñez giza-  
kieri lanbide bat erakustea.

Es da erreza zure egin bearra , gizakien indar guz-  
tia zure gain nabarituko dozulako.

Zure eginkizunaren jokabideagaitik Erantzunki-  
zunaren Doaia emongo deutzut.

Eta Akerraga bere lekura itzuli zan.

Bereizkuntza garrantzitsuena: Iraunkortasuna

Zelangotasuna: Neurrizalea.

Akatsa:Elkortasuna.

**UGETA,  
zatoz ona...!**



Zuri, Ugeta, etorkizunari buruzko iritzia damotzut  
zure bidez gizakiak geigo egin daitekela ikusi al  
dagian. Bakartasun samiña nabarituko dozu nire  
Maitasuna zugaratzea ukatzen detzudalako.

Gizakien begiradak eginkizun barrietara zuzendu al  
dagizuzan Askatasunaren Doaia damotzut, aske izanik  
nonai dagoen gizatasunaren lagun biurtu zaitezzen.

Eta Ugeta bere lekura biurtu zan,

Bereizkuntza garrantzitsuena: Jatortasuna.

Zelangotasuna: Umanismoa

Akatsa: Erradikaltasuna.

**ARRAÑETA,  
zatoz ona...!**



Ez zaitut itxi alperrik azkenerako, eginkusunik  
gaitxena emon deutzut eta.

Batu egizuz arren, gizakien naigabeak eta ekarri  
eidazuz Niri.

Zure malkoak, azken batez, nireak izango dira.

Eukiko dozuzan neke ta naigabeak gizakiak nire  
Ideiari egindako nasteen emaitzak dira.

Errukia bereganatzea dagokizu barriro lortzen  
alegindu dadin.

Zure eginkizuna zure anaiak babestu ta bizkortzea  
izango da, zuregandiko gaitasuna onartuz, beraga-  
natzen ekin dagien.

Eginkizun onengaitik Doairik garaiena damotzut:

Zu bakarra izango zara nire Amabi Semeen artean  
ulertuko nauzuna.

Ulermenaren Doai au , Arrañeta , zuretzako baka-  
rrik izango da, ba iñoz gizonen artean zabaltzen  
alegintzen ba zara, ez dabe aintzat artuko eta gi-  
txik entzungo.

Eta Arrañeta ez beste iñor, bere lekura itzuli zan  
banaka bere Amaika anaiak irriparrez agurtuz,  
jakiñik euretariko bakoitza bere bizitzakide biur-  
tu zala. Une aretan maite-maite eban euretariko  
bakoitza.

Eta eskertu eban Jauna, ain goragarrizko eginki-  
zunerako aukeratzeagaitik.

Bereizkuntza garrantzitsuena: Sentiberatasuna  
bizitzaren aurrean.

Akatsa: Nekealdian alde egiteko gogoia.

....Orduan Jaungoikoak amaitu eban:

“Zuetariko bakoitza erabat ona da, baña ez dozue  
ulertuko alik eta danok

**BAT EGIN ARTE.** Orain zoazie...!!!

Eta amabi sorkariak abiatu ziran alik eta ondoen  
euren eginkizuna osatzera.

**MUNETXEK**

